

HAURREN ETA GAZTETXOEN ARTEAN
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO
PROGRAMA - 2022

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA
- 2.- HELBURUAK
- 3.- AZPIEGITASMOAK
 - 3.1.- “Gurot” egitasmoa
 - 3.2.- “Kalean olgetan” programa
- 5.- KRONOGRAMA
- 6.- GASTUEN ZERRENDA

ERANSKINAK:

- I. ERANSKINA: “GUROT” egitasmoari buruzko txosten zehatza (Alkarbide) eta 2021eko memoria.
- II. ERANSKINA: “Kalean olgetan” egitasmoa (programazioa)

1.-SARRERA

Badira urte batzuk egitasmo puntualak garatu izan direna Euskara Zerbitzutik gaztetxoan aisialdia bideratzeko zein euren irakurzaletasuna bultzatzeko (asteburuetakoa aisialdia, Kontu kontari, Topagunearen programa,...).

Bidean geratu direnez batzuk, “normaltasunaren” izenean gaindituzat eman direnak goi erakundeetatik (zapatuetako Gaztelekuak, asteburuetakoa aisialdia programa, udalekuak,...), urteak joan ahala beste egitasmo berri batzuei eutsi diegu haur eta gaztetxoaren euskararen erabilera sustatzeko.

Bidean geratu da baita Gaztezulo aldizkariaren harpidetza, DBHko 4. mailako ikasleei sei hilabetetan doan eskaintzeko. Gaztezulok egindako hausnarketa bitarteko, paperezko euskarriari uzteko eten bat izan zen 2017an, “Beitu!” euskarri digitalari eusteko. 2018an paperezko euskarri horri berriro eusteko proposamena jaso genuen, baina 2020an Udal Eskola Kontseiluan egindako hausnarketaren arabera aldizkari digitalaren harrera eskasa nabarmendu zen eta bertan behera uztea erabaki zen.

Beraz, esparru honetan 2019an eutsi genion “Gurot” egitasmoari eta berau indartzea erabaki dugu. Tako Alkarbidetik koordinatutakoa eta 12-17 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako egitasmoa. Ezaguna denez, sakeleko telefonoetarako prestatutako aplikazio berezia du oinarri eta galdera-erantzunetako lehiaketa antolatzen da, epe bakoitzean sariak banatuz.

Bestalde, 2019an hasiera eman eta 2020-2021 aldiaren pandemiagatik eten beharra izan dugun “Kalean olgetan” egitasmoari berriro eutsiko zaio: 5-12 urte bitarteko hurrei begirakoa, jolastoki eta parkeetan burutzekoa, gurasoen inplikazioa landuz (Donostiako “parketarrak” proiektuaren ildotik sortu zen ideia). Bere sasoian egindako txosten bateko paragrafoa ekarri behar hona: *“2016ko kale neurketaren datuengatik kezkatuta esperientzia pilotu bat izan genuen 2017an eta tajuz garatu da 2018ko azken hiruhilekoan, **“Kalean Olgetan”** lemapekoa eta 5-12 urte bitarteko haurrengan maila informalean eragiteko asmatua. Kaleko jolas lekuetan burutzen da eta osagaiak ditu gurasoen partaidetza lantzeko”*.

2.-HELBURUAK

Indarrean daukagun 2019-2022 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana oinarri, 2021eko Kudeaketa Plana moldatu da eta bertan aintzat hartu hurrengo helburuak honako egitasmo honekin :

- Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.

Esparrua:

1. Familia bidezko transmisioa

1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (Toki erakundeak)

1.3.1. Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elkaratzea

- "Euskera olgetan errotu" kanpaina burutu, gurasoak eta umeak batera jolasean
- Udan ludoteka familiarra antolatu
- Jolaslekuetan eragiteko egitasmoak antolatu ("kalean olgetan")

- Helburu estrategikoa: 2- Euskararen erabilera

7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)

7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteel zuzendutako ekintzetan

- Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka), opor sasoietaoak (jolas parkeak)

- Zehar-lerroko helburuak:

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.11. Teknologia berriak (Toki erakundeak)

14.11.1. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sarera informazio bila euskaraz ere jo dezaten

- Herritarrengan eragin, batez ere gazteenengan, euskaraz jo dezaten sarera informazio bila

14.11.3. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sakelakoetan, tabletetan eta galnerako tresnetan euskarazko menuak, mezuak, etab., euskaraz izan daitezen

- GUROT lehiaketa antolatu eta garatu 12-17 urte bitarteko gazteentzat

3.- AZPIEGITASMOAK

Atal honetan desberdintzen ditugu bi azpiegitasmo:

- 3-1.- “Gurot” lehiaketa
- 3.2.- “Kalean olgetan” proiektua

3.1.- “GUROT” lehiaketa

“Gurot” egitasmoa, Alkarbidetik koordinatutakoa eta 12-17 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua. Ezaguna denez, sakeleko telefonoetarako prestatutako aplikazio berezia du oinarri eta galdera-erantzunetako lehiaketa antolatzen da, epe bakoitzean sariak banatuz.

Aspaldian gabilta Alkarbidetako lan-mahaian batzarrak egiten egitasmo hau hobetu asmoz, 2019tik hona, eta 2020ko oinarri nagusiak finkatu berri genituenean, “pandemia” etorri zitzaigun, guztia hankaz gora ipini zuena. Gogoz eutsi genion 2021ean eta lortu genuen aurrera ateratzea; gauza berrien artean, nabarmendu egin behar da herrien arteko lehiaketa. Aplikazioa taldeka jolasteko egokitu ondoren, herri bakoitzean sailkatutako final presentziala jokatu zuten 2021eko abenduaren 20an, benetan esprirentzia positiboa eta motibagarria 2022rako (ikus I. eranskina).

2021ean lurralde mailan parte hartzeaz gain, urte osoko kronograma eratu genuen udalerrri mailako lehiaketa hiruhilabeteko egiteko, banakako eta taldekako sariak eskainiz. Horri eutsi nahi diogu 2022an.

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: koordinazio lana, egitasmoaren zabalkundea, jarraipena egitea.

- Alkarbideko lan-mahai berezia: Alkarbideko koordinaziorako teknikariak bertan, egitasmoarekin bat egin dugun herriak gara partaide (Getxo, Erandio, Mungia, Leioa, Uribe Butroe, Txorierra, Uribe Kosta, Gernika-Lumo).
- Gernika.Lumoko Udal Eskola Kontseilua eta bertan partaide diren irakaskuntza zentroak, DBHko ikasleak dituzten hiru zentro (Seber Altube ikastola, San Fidel Ikastola, Mertzede Ikastetxea) eta bi Institutu (Gernika Institutua eta Barrutialde Institutua). Eurak izan dira benetako bultzatzaileak, gaztetxoaren artean GUROTen hedapena egiteko.

Giza eta diru baliabideak:

- Euskara Zerbitzuko HNT. Diru baliabideak ere Euskara Sailak jarriko ditu.
- Eskoletako normalkuntzarako arduradunak: “Gurot” lehiaketaren zabalkundea eta dinamika ziurtatzeko.
- Alkarbideko koordinatzailea. Partaide diren herri eta mankomunitateeko arduradunen bilkurak antolatzeko eta aplikazioaren mantenua eta tripak kudeatzen dituen enpresarekiko harremanak izateko.

Xede taldea.- “Gurot” lehiaketan partaide dira 12-17 urte bitarteko gaztetxoak, gutxi gora-behera 1.100 bat (kontuan hartuta datu hauetan udalerriko ikastetxe guztietako datuak daudela eta, beraz, DBHko ikasle guztion artean inguruko herri txikiak ere barne daudela).

Adierazleak.- Gernika-Lumon parte hartuko duten norbanakoak eta talde kopurua.

3.2.- “KALEAN OLGETAN PROIEKTUA

Sarrera idatzian aipatutakoa ekarri behar hona eta argitasun gehiagorako II. Eranskinera jo behar da.

Oinarriak

Euskararen erabilera areagotzea helburu eta Gernika-Lumoko Udalak URE elkartearekin daukan harreman estua bitarteko, honako hauek dira “Kalean olgetan” kanpainaren oinarriak:

- 5/12 urte bitarteko haurrei eta euren gurasoei zuzendua.
- Astegunetan hiru egunez maila informalean eragitekoa (plazetan eta jolas parkeetan; San Juan Ibarra plaza, San Kristobal Plaza, Pasealekua, Lurgorri eta).

- Gurasoen partaidetza zuzena lantzeko jolasei buruzko fitxak banatzea aste batetik bestera eta talde jolasak eskaini.
- Zabalkundea ere in situ egitea, kanpainaren kronograma gurasoei emanda.

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua.
- Gaztedia Saila.
- “Urdaibai Rugby Eskola” aisialdirako elkarteak.

Giza-baliabideak:

- HNT teknikaria.
- Gazte informatzailea.
- URE Elkarteko koordinatzailea eta hiru monitore.
- Diruzkoak: Euskara Sailarenak.

Azpiegitura:


- Gaztelekua (Kultur Etxea Fundazioa) eta bertako material guztia (jostailuak, mahaiak, aulkiak).
- Gorpildun tramankulu berezia eta karpa txikia (jostailuak eta materiala lekutik lekura erabiltzeko). Kanpainaren erreferentea.
- Megafonia berezia.

Xede Taldea

“Kalean olgetan” jolastokietan maila informalean eragitekoa, 5-12 urte bitarteko hurrei zuzendua. Xede taldea 800 batekoa (2018ko esperientziak adierazten digu egun bakoitzean “partaide” izan zen batz-beste haurren kopurua 100 batekoa izan zela, lekuaren eta egunaren araberako datuak aldakorrak izanik).

Adierazleak:


- Programa bakoitzean parte hartu duten gaztetxoen kopurua.
- Haur eta gaztetxoen artean euskararen erabilpenak izan duen bilakaerari buruzko datuak batzen ditugu (Soziolinguistika Klusterrak lau urterik behin egiten duen neurketa berezia).



Iturria: Soziolinguistika Klusterra (2016ko kale neurketa)

- **Belaunaldi gazteenak dira, 1989-2016 urte bitartean erabilera hazkunderik altuena bizi izan dutenak:** gazteen erabilera 45 puntu areagotu da, eta haurrek, berriz, 27,2 puntu gora egin dute erabilera. **Baina kezkatzekoa da haurren erabilera behera** egin duela 2006tik 2016ra ia 9 puntu, beste adin taldeena mantendu denean. Gazteena ere mantendu egiten da.
- **Helduen erabilera, oro har, 4 puntu igo** da aztertutako hogeita zazpi urteko epean; 1989tik 2001era bilakaera positiboa (8 puntu gora) eta 2001etik 2016ra behera 4 puntu.
- **Adinekoetan, berriz, gutxika beheranzko joera dago** erabilera: 18 puntu. Beherakada horrek etena izan du 2011-2016 urte bitartean.

HAURREN PRESENTZIAREN ERAGINA ERABILERAN



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

- Dakusagunez, **erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak mintzakide direnean** (bai erdiguneko kaleetan zein ikastetxeetan. Ikastetxeetan haurrak eta nagusiak nahasian ari direnean %71,4ra igotzen da erabilera).
- Egindako neurketa desberdinetan (2001, 2006, 2011, 2016) antzeko joera ikusi da, baina gauza pare bat argitu behar:

1.- Haurrak bakarrik daudeneko datuetan kezkatzekoa da azken 5 urteetan izan den beherakada nabarmena, ikastetxetik kalera dagoen alde handia.

2.- Nagusiak haurrik barik daudeneko datuetan jaitsiera izan da eta haurrak eta nagusiak nahasturik daudenekoetan ere bai. Argitu behar baita ere, haurren presentzia soilak ez duela eragiten helduen/adinekoen erabileran, elkarriketan parte hartzeak baino.

4.-GARAPENA - KRONOGRAMA

Jarduerak	Urt	Ots	Martx	Apir	Maia	Ekain.	Uztail	Abuz	Irail	Urria	Aza	Abend
“Gurot” egitasmoa zabalkundea 2022an												
“Gurot” lehiaketa garatu lurralde mailan												
“Gurot” lehiaketa udalerrri mailan												
“Gurot” sariak udalerrri mailan												
“Gurot” lehiaketaren final presentzialak											2022 koa	
Kalean olgetan (prestaketa)												
Kalean olgetan (kalean gauzatzea)												
Kalean olgetan (hausnarketa)												


Kalean olgetan proiektuaren jarduera egunak

Martxoa							<p>- Astean hiru egunez, eguaztena, eguena eta barikua.</p> <p>- Egun bakoitzean 17:00etatik 19:00etara hartzaileentzat (16:30/19:30 bitarteko prestaketa, garraioa eta batzea barru).</p> <p>- Goriz dagoena San Juan Ibarren</p> <p>- Berdez, Pasealekuan</p> <p>- Urdinez, San Kristobal plazan</p>
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
Apirila							
		30	31	1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30	1	
Maiatza							
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
Ekaina							
30	31	1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	

5.- AURREKONTUA

Kontzeptuak	Kopuruak
GUROT zabalkundea (OCR agentzia)	500
Zabalkundea medioetan	500
“Gurot” aplikazioa mantendu eta egokipenak (Gestionet enpresa)	1.500
“Gurot”: lehiaketaren finala leku fisikoan antolatzea (izendatu beharreko enpresa)	1.200
Sariak (lurralde mailakoak eta herri mailakoak)	2000
Kalean olgetan programa garatzeko adjudikazioa (kontratu txikia: begiraleak, materiala, publizitatea)	10.000
Gastuak guztira	15.700

Gernika-Lumon, 2022ko urtarrilean.


 Iñigo Magunagoikoetxea Agirre
 Euskara zinegotzia




 Bittor Zarrabeitia Bengoa
 Hizkuntza Normalizatzailea





gernika-lumoko
euskara zerbitzua



I. ERANSKINA

“GUROT” EGITASMOARI BURUZKO TXOSTENA ETA 2021eko MEMORIA (ALKARBIDE)

GUROT, EUSKAL GALDEREN UNIBERTSOA: funtzionamendua eta oinarriak

1. ZER DA GUROT, EUSKAL GALDEREN UNIBERTSOA?

Koldo Zuazok eta Urtzi Goitik idatzitako “Uribe Kosta, Txorierrri eta Mungialdeko euskara” izeneko liburuan dago oinarritua *Gurot, euskal galderen unibertsoa* deritzon aplikazioa.

Aplikazioa 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago (JUNIOR 12-14 eta SENIOR 15-17) eta gazteen aisialdian euskararen erabilera sustatzea da xedea, kultura unibertsala eta euskal kultura online landuz. Jokoak helburu bikoitza dauka:

- Alde batetik, irakaskuntza arautuko ikasgaien erabilera eskolastikotik urruntzea, gazteek ez dezaten besterik gabe euskara baztertu.
- Bestetik, aplikazioak tresna eraginkorra izan nahi luke, gazteek jolasaren bidez euskara hutsezko harremanak izan ditzaten.

2. Aplikazioaren funtzionamendua eta oinarriak

Gurot aplikaziora sartzera koan, jokatzeko modu desberdinak daudela erreparatu daiteke: **erruleta, norgehiagoka eta taldeka lehiatzeko aukera. (2020)**

- **Erruleta:** plataformaren zatirik handiena hartzen du. Atal horretan 8 ataleko zirkulu birakari bat dago: bakoitzak arlo bat ordezkatzeko du (aisia, artea, gizartea, hizkuntza, kirola, kultura, natura eta zientzia). Erruleta biraka ibili ostean, atal batean geldituko da eta berorri dagokion arloko galdera bat egingo zaie.
 - Arlo bakoitzean hiru galdera zuzen asmatuz gero, arlo horren ikurra lortuko dute. Zortzi ataletako ikurrak lortu ostean, puntuak jaso eta nahi badituzte, beste bat jokatzeko moduan egongo dira.
- **Norgehiagoka erronkak:** atal horretan plataforman dauden beste jokalarien aurka lehiatuko dira, bost galderen bidez.
 - Erantzun zuzen gehiago asmatzen dituen izango da irabazlea. Irabazleak puntuak jaso eta galtzaileari kendu egingo zaizkio.

- Gainera, aurkaria hautatzeko bi modu daude: bata, aplikazioaren esku utzita; eta, bestea, norberak aukeratuta.

Erruletak eta norgehiagoka erronkak bakarka jokatzeko izango diren arren, aurreko taldeka lehiatzeko aukera izango dute Udaletako gaztetxoek.

- **Taldekako lehiaketak:** urtarriletik aurrera aplikazioan taldeka lehiatzeko aukera egongo da.
 - **Oharra:** lehiaketa asinkronikoetan oso garrantzitsua izango da Udal edo mankomunitateetako teknikariek berriro zabalkunde lana egitea eta bakarka zein taldeka lehiatzeko eta sari potoloak eskuratzeko aukera daukatela jakinarazi (amua bota).
 - **Izen-emateko epe bat eskainiko diegu.** Garrantzitsua izango da kasu honetan Udaletan zabalkundeari indarra ematea izen-emate gehiago egoteko.

BALDINTZAK

- Taldeak lau lagunez osatuta egongo dira eta ahal den neurrian taldeek mistoak izan beharko dute.
- Talde bakoitzak bere abatar propioa sortzeko aukera izango du.
- **Nola indartu zabalkunde Udaletan?** Sare sozialak (Instagram eta Facebook) edota Udaletako webguneak elikatu, aplikazioaren postak partekatu eta aurkezpenak (institutueta, kultur-etxean...).
- **Udaletako/mankomunitateetako irabazleak:** lehiaketa asinkronikoetan puntu gehien lortzen dituen taldea izango da irabazlea.
Udal/mankomunitate bakoitzak bere sailkapen propioa izango du.

- **Sailkapena:** aurrez-aurreko finalerako talde kopurua (erreferentziatzat hartu da Udal/mankomunitate bakoitzeko biztanleriaren ehunekoa).

Udala/mankomunitatea	Ehunekoak (biztanleria)	Aurrez- aurreko finalerako talde kopurua
Erandio	%10.66	2
Getxo	%34.85	4
Leioa	%13.59	2
Mungia	%7.70	2
Uribe Butroe	%3.10	1
Txorierrri	%9.15	2
Uribe Kosta	%13.40	2
Gernika-Lumo	%7.55	1

Hauek dira ehunekoaren erreferentziak:

%1-%10 talde 1
%11-%20 – 2 talde
%21-%30 – 3 talde
%31tik gora – 4 talde

- **Aurrez-aurreko finala (taldeka):**

Udal/mankomunitate bakoitzak sailkapen propioa izango du (bai individuala, bai taldekoa). Horren arabera jakingo dugu nortzuk izango diren talde finalistak.

- Finala: ikasturtearen amaieran izango da eta **KULTUR KABIA (TOPAGUNEA)** izango da aurrez-aurreko lehiaketaren bideratzailea.
- Adina: bi zatitan banatzea proposatu da. Alde batetik, GUROT JUNIOR 12-14 urte eta, bestetik, GUROT SENIOR 15-17.



GUROT, EUSKAL GALDEREN UNIBERTSOA APLIKAZIOA

2021 – memoria txostena

Community manager lanak eta taldeen arteko lehiaketa

Datozen orrialdeetan, **GUROT, euskal galderen unibertsoa** aplikazioak 2021 urtean izan duen ibilbidea azalduko da.

Eskuarteetan daukazuen dokumentua bi ataletan banatzen da eta urtean zehar izandako jardunbide nagusiak biltzen dira bertan.

1. Alde batetik, egindako *community manager* lanak azalduko dira:
 - a. Batetik, urtarriletik-ekainera bitartean egindako lana.
 - b. Bestetik, irailetik-abendura artean egindako lana.
2. Bestetik, taldeen arteko lehiaketa asinkronikoaren eta Bizkaiko final handiaren berri emango da.

Lehenengo fasea :: urtarriletik ekainera arteko iraupena izan du.

- **Zabalkundea:** fase honetan ez da publizitate kanpaina berezirik egin. *Zeregin nagusia irudi berria webgunean eta aplikazioan txertatzea izan da.*
- **Sare sozialak:** gure sareak (Instagram, Facebook eta Tik-Tok) eta udaletxeetako sareak elikatuz elkarbanatu da beharrezkoa izan den informazio guztia.
 - **Erabiltzaile kopurua:**
 - Instagram: 447 jarraitzaile
 - Facebook: 365 jarraitzaile
 - Tik-Tok erronkak: 65
- **Banakako saria:** ekainaren 18an izan da banakako sariaren zozketa (patinete elektrikoarena) eta Txorierriko mankomunitateko (Derioko) Beñat izan da irabazlea.
- **Irudi berria:** webgunearen irudia berritzeko, iaz landutako irudiak erabili izan dira aplikazioan txertatzeko. Beraz, **aplikazioaren irudia egokitu egin dugu** (kolore biziagoak txertatuz).
- **Datuak:** lehendabiziko fasean banakako lehiaketan zentratu gara eta hementxe dituzue datuak (erabiltzaile kopurua):

Udala / Mankomunitatea	Erabiltzaileak
Gernika-Lumo	11
Getxo	10
Mungia	21
Txorierriko mankomunitatea	Derio: 30 Larrabetzu: 7 Lezama: 6 Loiu: 8 Sondika: 21 Zamudio: 20 Guztira: 92
Uribe Butroeko mankomunitatea	Gamiz Fika: 4 Maruri-Jatabe: 1 Meñaka: 3
Beste udalerrri bat	16
Guztira	158

Bigarren fasea : irailetik abendura arteko iraupena izan du.

Epealdi honetan bi lehiaketa fase desberdintzea erabaki dugu:

- Alde batetik, irailaren 29tik urriaren 29ra bitartean, BANAKAKO lehiaketan zentratu gara hilabetez - taldeen arteko lehiaketa eta banakakoa ez nahasteko helburuarekin.
- Bestetik, urriaren amaieratik abenduaren amaierara, TALDEKO lehiaketan zentratu gara.

Banakako lehiaketa

- **Datuak:** bigarren faseko lehen partean banakako lehiaketan zentratu gara eta hementxe dituzue erabiltzaile kopuruari dagozkion datuak:

Udala/Mankomunitatea	Erabiltzaileak
Gernika-Lumo	102
Getxo	35
Mungia	99
Uribe Butroeko mankomunitatea	29 2 Arrieta 14 Gamiz Fika 4 Gatika 1 Maruri-Jatabe 8 Meñaka
Txorierriko mankomunitatea	115 42 Derio 8 Larrabetzu 7 Lezama 8 Loiu 26 Sondika 24 Zamudio
Beste udalerri bat	28
Guztira	408

- **Banakako saria:** urriaren 29an banakako sariaren irabazlea nor izan den jakinarazi da aplikazioaren sare sozialetatik.
 - Kasu honetan, Gernika-Lumoko Julen Alonso izan da irabazlea eta errealitate birtualeko betaurrekoak eskuratu ditu.

Taldeko lehiaketa

Lehiaketa asinkronikoa

- Taldeen arteko lehiaketa **IKASTURTE BERRIAREKIN batera jarri da martxan** (lehiaketari buruzko erabakiak irailaren 28an egin genituen online bileran zehaztu genituen guztion artean).
- Urriaren amaieratik abenduaren amaierara, taldeen arteko lehiaketari eman zaio indar osoa.

Lehiaketako epeak

- Zabalkundea eta izena emateko epea :: urriaren 18tik azaroaren 8ra.
- Azaroaren 8an zenbat taldek izena eman zuten jakin genuen.
- Azaroak 9-abenduak 8 :: lehiaketa asinkronikoaren epea.
- Abenduak 9-10 :: udal edo mankomunitate bakoitzeko talde finalistak nortzuk diren jakin dugu.
- Finala :: abenduak 20 (Azkuna Zentroan).

Ezaugarri nagusiak

- Parte hartzaileak kategoria bakar batean lehiatu dira (12-17 urte bitarteko gazteak) eta hiru lagunez osatutako taldeak sortu behar izan dituzte.
- Zabalkunde bateratua. Bi motatako zabalkundea egin dugu:
 - Alde batetik, zabalkunde orokorra sare sozialen bidez.
 - Bestetik, udal mailako zabalkundea egin da, bakoitzak eskatutako kartelen bidez, baita eurak sortutako baliabideak erabili ere.

Udaletan osatutako taldeak

Guztira 61 taldek eman dute izena. Dena dela, jokalarien artean talde batzuk oso aktibo ibili dira galderak erantzuten. Hala ere, beste klan batzuen parte hartzea nahiko baxua izan dela eta horrek beren beregiko eragina izan du azken puntuazioan.

Klan kopurua :: 61 talde (guztira)

- Gernika-Lumo :: 8 talde
- Txorierriko mankomunitatea :: 27 talde
- Mungia :: 7 talde
- Getxo :: 18 talde
- Uribe Butroe :: talde 1

Irabazleak

Udal edo mankomunitate mailako irabazleak hauek dira: alde batetik, eskuratutako puntuazioa zein den zehazten da eta bestetik bakoitzak zein sari eskuratu duen (udal/mankomunitate mailan):

Udala	Talde irabazleak	Puntuazioa	Sariak
Mungia	Las sin nombre 145 mamuak	447 345	Tabletak 2 talde onenentzat.
Txorierriko mankomunitatea	Tinkiwinkis McQueens09	351 334	Tabletak 2 talde onenentzat.
Getxo	RipBizitzaS2 GTN	476 374	100 euroko bonoa Euskararen Laguna Saltokien sareko Getxoko establezimenduetan gastatzeko. 50 euroko bonoa Euskararen Laguna Saltokien sareko Getxoko establezimenduetan gastatzeko.
Gernika-Lumo	GOP Arkondarie	298 223	50 euroko bonoa taldekide bakoitzarentzat.
Uribe Butroe	Uribe Butroen ez dugu talde irabazlerik izan (izena eman zuen talde bakarrak ez duelako jolastu).		

Bizkaiko talderik onenak

Aurrez aurreko final handia ABENDUAREN 20an, arratsaldean, ospatu da Bilboko Azkuna Zentroan.

Hementxe dituzue zehaztuta nondik norako guztiak:

Eguna eta ordua :: abenduak 20 (17:30-19:30)

Tokia :: Azkuna Zentroan

Aurkezlea :: Oihan Vega

Hornitzailea :: DANOK

Kronograma

Ordua	Iraupena	Ekintza	Informazio osagarria
17:30	30 minutu	Ateen irekiera eta harrera	
18:00	15 minutu	Ongi etorria eta aurkezpen arauak	Talde bakoitza multzoka banatu eta arauen azalpena
18:15	20 minutu	Aurrefinala	Kahoot ariketak zuzenean
18:35	10 inutu	4 talde finalistaren aukeraketa	Hieroglifikoak (ariketa dinamikoa)
18:45	15 minutu	Zuzeneko musika (Kai Nakai)	
19:00	20 minutu	Final handia	4 talde finalista aplikazioarekin eszenatoian
19:20	10 minutu	Sari banaketa eta argazkiak	Talde irabazleei sariak abantu (bai udal mailakoak, bai final handikoak).

Azalpena

- Dakizuen bezala, hasiera batean, aurkezle lanak Jon Gomezek egin behar izan zituen; baina, COVID-19ak harrapatu zuen bete betetan. Hori dela eta, **Oihan Vegak egin zuen abenduaren 20an aurkezle lana.**
- Finalarekin hasteko, Oihan Vegak **ongi etorria eman zien bertaratutako guztiei (100 lagun inguru bildu ginen aretoan) eta, era berean, joko arauak azaldu zituen.**
 - **Oharra:** udal edo mankomunitate bakoitzeko bi talderik onenak sailkatu dira final handian parte hartzeko. Hau da, zuzenean zortzi talde sailkatu dira final handirako, Uribe Butroek ez duelako talde finalistarik izan.
- Horren ostean, eszenatokira igo gabe, udal edo mankomunitate bakoitzetik sailkatutako hirukoteak aretoko txoko desberdinetan bilduta, KAHOOT formatuaren bidez aldeztatik prestatutako galderak erantzun behar izan dituzte (aurre final baten antzekoa izan da).
- Ondoren, hortik, ariketa honetako hiru talderik onenak sailkatu dira "final handirako", hau da, eszenatokian jolasteko.
- Horrez gain, laugarren talde bati ere eszenatokira igotzeko aukera eman zaio. Hori bideratzeko, lehiaketa asinkronikoaren epea amaitu denean (abenduaren 9an), finalean sailkatu ez diren hirukoteei mezu/formulario bat bidali zitzaion, Bilbon oraindik final handian parte hartzeko aukera zeukatela adieraziz.
 - Finalean parte hartu nahi zutenek adierazitako galdetegia bete behar izan zuten. – 10 taldek eman zuten izena (talde bat Mungiatik, lau Getxotik eta bost Txorierritik).
- Gero, Azkuna Zentroan ariketa dinamiko baten bidez (hieroglifikoaren jolas dinamika baten bidez) eszenatokira igoko den laugarren talde hori nor den jakin genuen.

- **Finaleko irabazleak eta sariak**

Klanaren izena	Udala	Saria
ripbizitzas2	Getxo	Ordenagailu portatilak
Arkondarie	Gernika-Lumo	Smartwhatcha
PRN	Txorierrri	50€-ko hiru bono denda
LasSinNombre	Mungia	Scape roomerako sarrerak

- **Lotura:** (579 ikustaldi) – zuzeneko saioa streaming bidez jarraitu ahal izan zen / orain, nahi duenarentzat Youtuben dago eskuragarri.

Bideoaren lotura ::

<https://www.youtube.com/watch?v=i48baCfQTK&t=11s>

Aurrera begirakoak

- 2022 urtean momentuz mantenimendu gastuekin egingo dugu aurrera.
- Finalari dagokionez, aurrera begira antolatzen badugu, iraupen aldetik laburragoa izatea komeni da (batez ere, galderen kudeaketari dagokiona erdira jaitea).
- Laster egingo dugu bilera bat 2022 urteari dagokion plangintza pentsatzen hasteko.

II. ERANSKINA

EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO KALE NEURKETA - 2016

HAURREN ERABILERARI BURUZKO HAUSNARKETA ETA SORTUTAKO KEZKAGATIK EGINDAKO PROPOSAMENA

Soziolinguistika Klusterrak 2016an egin du neurketa, metodologi zientifikoa eta baliabide teknologikoak erabilia. Neurtutako hiztun kopurua guztira (adin guztietakoak): 5.491 hiztun.

Kontuan hartu behar da haurtzat hartzen direla 12/13 urtera artekoak.

Neurketa horretako emaitza orokorren arabera moldatu dugu hurrengo hausnarketa, haurren erabilera erreparatuta kezka sortu zaigulako.

Erabilera orokorra eta adin multzoka	2011 URTEA	2016 URTEA	
Erabilera orokorra	%52,00	5.491 / euskaraz 2.714	%49,4
Haurrak	%69,1	2.210 / euskaraz 1.312	%62,2
Gazteak	%54,8	356 / euskaraz 193	%54,21
Helduak	%43,3	2.425 / euskaraz 996	%41,01
Adinekoak	%36,1	600 / euskaraz 213	%35,5

ONDORIO NAGUSIAK

- 1) Haurrak dira euskararik gehien erabiltzen dutenak orokorrean, baina kezkatzekoa bada haurren erabilera orokorrean dagoen beherakada, **kezkagarriagoa** da haurren erabilera dagoen **aldea ikastetxetik kalera** (17 puntu gutxiago). Hona hemen datuak:

Haurren erabilera	2011 urtea	2016 urtea
Orokorra	%69,1	%62,2
Ikastexe inguruan	-----	%70
Kalean	-----	%52,6

- 2) **Eta are kezkarriagoa “haurrak bakarrik” daudenean** jasotzen ditugun 2016ko erabilera datuak (25 puntu gutxiago kalean ikastetxean baino):

Haurrak bakarrik ikastetxean 2016	Euskaraz %66,7
Haurrak bakarrik kalean 2016	Euskaraz %41,4

Dinamika hori (ikastetxetik kalerako alde) aurreko neurketetan ere gertatu izan delako ustea daukagu, baina ez dago “haurrak bakarrik” daudeneko ikastetxe inguruko beste neurketetako daturik.

- 3) **Haurrak eta gurasoak nahastean daudenean, ostera, erabilerak gora egiten du,** bai gurasoen kasuan zein haurrenean ere; gainera, mantendu egiten da haurren erabilera altua ikastetxean zein kalean:

	Euskaraz orokorrean	Euskaraz haurrak protagonista	Euskaraz nagusiak protagonista
Haurrak eta nagusiak nahastean ikastetxean	%71,4	%76,3	%58,4
Haurrak eta nagusiak nahastean kalean	%56,8	%67,4	%43,4

PROPOSAMENA

Ezin utzi hemen aipatu barik **aurrekari batzuk**. Euskara Sailak sustatuta eta URE elkartearen eskutik, “**Asteburuetakoa aisialdia**” deituriko egitasmoari 2002an ekin zitzaion, 6-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta, eta bidean sartu zen “**Gaztelekuko zapatuak**” egitasmoa ere, 12-16 urte bitartekoei eskainitakoa Gaztelekuan bertan.

Urteak joan ahala, bidean geratu zen “Asteburuetakoa aisialdia” deiturikoa, diru falta aitzakia (2010ean...).

Orain, euskararen erabilerari buruz 2016an egin den kale neurketaren emaitzek kezka sortu digute. Haurrek, 5-12 urte bitartekoei, maila informalean (kalean) eta euren artean bakarrik ari direnean, erabileran beharakada nabarmena dute, ikastetxe inguruetako erabilerarekin alderatuta.

Horri konponbidea ipini nahian, **hausnarketa talde bat osatu genuen** 2016ko maiatzean (URE Elkarte, Kultur Etxeko zuzendaria, Gazteen Informazio Bulegoko arduraduna, Gazteria arloko zinegotzia, Euskara zinegotzia eta Euskara Zerbitzua), haurrek kalean dituzten harremanetan eraginkorrak diren bariabileak aztertzeko (jolas parkeak eta haurren bilguneak, adin multzoak eta haur tipologia, ekintza mota, biltzeko

orduak eta egunak,...) eta, ondorioz, **soluzioak planteatzeko. Helburua:** 5-12 urte bitarteko haurren hizkuntza ohituretan eragin maila informalean (horra hor Donostian gauzatzen ari den pareko egitasmoa: PARKETARRAK).

Hausnarketarako oinarri gisa, Euskara Zerbitzuak honakoa luzatu zion URE elkarteari:

1).- Haurren jolas guneak (jolas parkeak) eta leku bakoitzean izan daitezkeen **variableak identifikatu** (gurasoen presentzia, haurren adin multzoak eta tipologia, jolas motak, lekuko baliabideak, estalpe gunerik dagoen, biltzeko orduak eta egunak,...) eta **bi hilabeteko epean proposamen bat diseinatu**.

2).- **Diseinatutako egitasmoari ekin 2017ko urte bukaeran** (hilabeteak zehazteke). Horretarako, Euskara Sailak gorderik daukan 4.000/5.000 euroko diru partida erabiliko da.

3).- Egitasmoaren garapenez balorazioa egin 2018 urteari begira eta Udal saila desberdinen arteko elkarlanari (Kultur Etxea, Gazteri Arloa, Euskara Saila) eutsi, bakoitzak ahal duen diru ekarpenarekin **urte osoko egitasmoa borobiltzeko**.

URE Elkarteak KALEAN OLGETAN ekimena proposatu zuen iralean (1. Eranskina):

Egindako hausnarketari eutsiz eta guk emandako irizpideak kontuan, URE elkarteak proposamen zehatz bat aurkeztu zuen, KALEAN OLGETAN ekimena, bi hilabeteko esperientzia pilotua burutzeko hiru jolas-leku desberdinetan (Pasealekuan, San Juan Ibarra plazan eta San Kristobal plazan), maila informalean eta zeharbidetik haurren erabileran eragin asmoz.

Horrez gain, badaukagu beste egitasmo baten berri:

Gaztetxoen erabileragatiko kezkak eraginda, Iametzaren enpresarekin bildu zen Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta eurek azaldu ziguten Oarso-Aldeko Euskara Zerbitzuekin elkarlanean esperientzia bat diseinatzen ari zirela. Horren fruitu izan da Iametzak HPSri aurkeztu dion proposamena, Oarso-aldean eta Gernika-Lumon esperientzia piloto bat garatzeko: **“kuxkuxeroak” egitasmoa (2. Eranskina)**, 12 urtetik 18 urte arteko gaztetxoen erabileran eragiteko (baliabideak: erreferente diren pertonekin solasaldiak, teknologia berrien erabilera,...). Zehaztasunak ezagutzeko irrikitan gaude, gure kabuz egiten ari garenarekin hori ere uztartzeko.

Guztiak izango ditugu beharrezko erabileran eragiteko, baina itsu-itsuan ekin beharrean, lehenetsunak markatu, eragin guneak edo moduak ondo diseinatu eta patxadaz garatu behar dira eraginkorrak izan daitezen.

Gernika-Lumo, 2017ko iraila
EUSKARA ZERBITZUA

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria

Jostailuan kutxa



Jolasei buruzko fitxak (eredua)

Kalean Olgetan

- Kalean Olgetan umeek elkarrekin, plaza eta parkeetan, jolastea bultzatzea helburu duen egitasmoa da.
- 3-12 urte bitarteko ume eta gaztekoel zuzendua. 3-6 urte bitartekoek gurasoen laguntzarekin eta 7 urteko aurrerakoak beraien kabuz moldatuko dira.
- Bi orduko saloan zehar, 17:00-19:00, jolas-kutxako materialak mailegatuko dira. Jolasa jaso eta itzulterakoan izen-abizenak eta adina eman beharko dira.
- Herriko plaza ezberdinetan garatuko den egitasmoa da.

Lagunekin jolasteko eguneko proposamena:

PI JOLASA

Lehendabizi zorketa egin behar da, betetzen nor geratuko den erabakitzeke. Bete denak begiak itxiho ditu eta besoak alboetara luzatuko ditu. Orduan, buruz zentzuetan hasiko da. Hogeita batetik hasi eta atzeraka zentzuetako: 21, 20, 19...

Halako batean, beste jokalariek gutxiak besok ukituko dituzte eta ezkutatuera korrika abiatuko dira. Orduan, begiak ireki gabe, betetzen ari denak atzeraka zentzuetan jarraituko du, baina oraingo honetan orain esango ditu zentzuetatik eta PI hitza gehituko die: ...PI 10, PI 17, PI 16...

Zentzuetan bukatu ondoren (...PI 3, PI 2, PI 1, PI 0, PI A!) ezkutatu dauden jokalariek aurkitu beharko ditu. Horretarako, dagoen tokitik hiru pauso besterik ezin ditu eman eta bertatik ikusi beharko ezkutatu dagoen norbait. Baten bat ikusiz gero "PI ..." eta izena oharikatu da. Berritri begiak itxiho ditu eta zentzuetan hasiko da.

Ezkutatuta daudenak atara egingo dira eta besoak ukitu ondoren guzua bera errepikatuko da, baina aurreko txandak ikusiz izan denak ezingo du parte hartu. Jolasa errepikatuko da, jokalariek gutxiak konpaini galdituko dira.

ONDO PASA!



KLARIONEKIN JOLASTEN: GURUTZEAN TXINGOKA

HISTORIA

Txingoka greziar, erudimenez, espaldiko ohitura da. Herriek Erromako furioan herrietako jolasen arteko murrak bat aurkitu dituzte, eta bidezki erromatarren jolasen Europako gurutzaren zehar zabaltu zirela jolasa, erromatar gutxiak eta aproposak baiterren herrietako jolasa egiteko.

Hizieran sinismenekin eta magiarekin zerikusia duen, eta horiek dotze zerua, kera eta, baiquetan, itzasa adierazteko lantzeko murraketo ohitura. Gaur egun oso jolasa eguna eta erabilia da. Jolasteko arak antzekoak izaten dira, baina murraketoak ezak iduri egiten dira leku bakoitza bostera.

INFORMAZIO OROKORRIA:

Edulak:

- Klarionen kutxa
- Egurzeko fitxa
- Informazio orria

Jokalariek nahitaxe:

Induktutako edina: 6 urteko aurrera

Jolasaren garapena:

- Sei lantza zatutako gurutz moduko bat marraztu behar da lurrean. Lantza bakoitzari batenek jarraio zentzu bat dagitxo. Sigarren lantzarik gainera birlak eldi bat marraztuko dugu, eta "zerua" izena jarriko dugu. Jolasa hasi aurretik jokalariek txandak ondo erabaki behar da. Egurzeko fitxa jaurti eta marraztutako gurutzaren suten duena izango da lehena.
- Lehengo jokalariek egurzeko fitxa hartuko da eta lehengo lantzarik botaiko da. Egurzeko fitxa lantza berran geratzen bada, marraztutako gabe, jokalariek horiek jarraituko du jolastean. Hark, baten gainera bigarren, eta hirugarren lantzarik geratuko da. Gero bigarren lantzarik errotuko harka jarriko da eta bigarren lantzarik ezkerreko (gaur berran). Ondoren sigarren lantzarik harka baten gainera jaurtuko da eta zerua bi harka gainera iritsiko da. Berran sartu bat eginez buelta emango du, eta itzulera bidari ekingo da.
- Bigarren lantzarik bideratzen lehengo lantzarik dagoen egurzeko fitxa hartuko da eta aldirotxara itzuliho da. Jaurti bat eginez. Bide gutxi marraztutako gabe eginez gero, berran egurzeko fitxa botaizko aukera izango da, baina oraingo honetan bigarren lantzarik utzi beharko du egurzeko fitxa, gero hirugarrena, etab.
- Jolasa honela errepikatuko da lantza gutxiak egurzeko fitxa utzi. Lantza gutxiak egin ondoren, jokalaria jaurti jarriho da, zera begira, eta lantza gainera egurzeko fitxa botaiko da. Lantza baten berran marraztuko gabe, lantza horiek bere izena izango da aurrerantzen. Beste jokalariek ezingo dute lantza hori zapaldu jabean berran erabaki gabe.



Kalean Olgetan: Lekuak.

- 1- Pasilekua: Futbol Kantxa. Euriarekin arkupean.
- 2- San Kristobal Plaza: Plaza erdian. Euriarekin etarteetan.
- 3- San Juan Ibarra Plaza: Plaza erdian. Euriarekin Merkatu Plazan.

*D. Eufreddi
Rane
ACTRA*

Kalean Olgetan: Datak:

Urria:						
16	17	18 Pasilekua	19 San Kristobal	20 San Juan Ibarra	21	22
23	24	25 San Juan Ibarra	26 Pasilekua	27 San Kristobal	28	29
30	31					
Azaroa:						
		1 San Kristobal	2 San Juan Ibarra	3 Pasilekua	4	5
6	7	8 Pasilekua	9 San Kristobal	10 San Juan Ibarra	11	12
13	14	15 San Juan Ibarra	16 Pasilekua	17 San Kristobal	18	19
20	21	22 San Kristobal	23 San Juan Ibarra	24 Pasilekua	25	26
27	28	29 Pasilekua	30 San Kristobal	1 San Juan Ibarra	2	3 ENE

Kalean Olgetan: Ordutegia:

17:30-19:30

Kalean Olgetan: Zer egingo da:

- 1- Ume eta gazteentzako euskal musikarekin girotu eta mikroarekin argibideak eman.
- 2- Jolasen kutzako materialak banatu eta jaso.
- 3- Ume eta gurasoei eguneko jolasen jarraibideen orriak banatu. Asmoa eguneko jolas bi aurkeztea da.
- 4- Jolasak dinamizatu.

Kalean Olgetan: Jolasak:

Soka saltoa, uztaiak, pilota bigunak (poto-poto, zalai errea,...), hankapalu txikiak, tronpak, puztarriak, txapak, tortolosak, kartak,...

Kalean Olgetan: Giza baliabideak:

Bi begirale euskaldun eta koordinatzaile bat.

Kalean Olgetan: Egitasmoaren logoa:

Kalean  lgetan
